

FAUNA PUBLIKOA

**“Euskalduna naiz,
30 abizen euskaldunekoa,
baina denaren gainetik
espainiarra naiz”**

Ainhoa Arteta, soprano (El Español)

Zortzi abizen mantxurriano



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Nola nahasten diren, zezenaren kemena daukan adierazpen honetan, opera kantari baten alfonbra gorriko goi-kultura eta *8 apellidos vascos* bezalako azpi-produktu zinematografiko baten ideologia populatxeroa: Ainhoa Artetak atera ditu paseatzera Moisesen garaiko bere asabak Federico Garcia Lorcarri gorazarre egiten dion ikuskizun baten erdian, batek daki, agian 1930eko urteetan bogan zeuden ideiekin kutsatuta dagoelako-edo. Eta eskaini du produktu bat oso goian kotizatzen ari dena zenbait hedabide espainiarretan, alegia, arraza euskalduna Espainia *über alles* defendatzen.

Kopla andaluziarretan ari omen zen; aritu zitekeen Osaba Sabin'egaz kopla bizkaitarretan ere: “Antziñeko enda zar, / garbi ta bakana / orain maketuenak / dagona betuta...”, stop, stop, stop, ez dauka graziarik-eta. Artetari inork ez dio esplikatu 30 abizen euskaldun edukitzeak egiten zaituela, zehazki, 0 abizen euskaldun edukitzeak bezain euskaldun. Ezta gramu bat gehiago ere. Euskaldun izatea pertenezia-sentimendu bat delako, izan Arteta-Ibarrolaburu-Foruria-Zurutza –memoria behar da horrela hogeita hamarreraino segitzeko–, edo izan Paredes-Antonescu-Diouf-Wang. Ez baitu inporta, Madrilgo karka batzuek edukiko baitute horrekin obsesioa –agian espainiartasun-karnetak horrela banatzen dituztelako–, baina hemen pentsatzeko modu hori bota genuen Historiak errefusa botatzen duen kontainerrean.

Bonus-track gisa, tolosarrak kataluniarrei eskaini zizkien azken bi kantuak, “sentitzen direlako –ni denbora luzez bezala– ideologikoki bahituta”. Ez Arteta: bahituta Jose Maria Aldaia edo Jose Antonio Ortega Lara egon ziren. Fribolita-teak baditu mugak. Norbere burua biktimen pare jartzea, adibidez.

